

FRANTZIAKO IRAULTZA GARAIKO EUSKAL DOKUMENTU BATZU

Pello Salaburu

1865. urtean argitaratu zen Baionan liburu kurios bat: "*Pièces historiques de la Période Révolutionnaire en Français et en Basque, en regard*". Azalean dioenez, 2. faszikulua da (1). Non ote dagoen lehen partea edo zein ote den haren edukia ezin jakin izan dut.

Komentatzen ari naizen liburuxka honek hiru parte ditu:

1. Sarrera luze bat frantsesez
2. Bi kanta erligioso
3. Bi dokumentu politiko

Kantuak eta dokumentuak dira, noski, hemen agertzen diren gauzarik interesgarrienak, lehenengo sarreran beste berri kurios zenbait ematen bazaizkigu ere. Haien interesa noiz eta nola idatzi zirenean datza, hau da, Frantziako Iraultza bero bero zegoenean, gizarte osoa dardaratzen ari zen bitartean, liburua bera mende bat beranduago agertu arren.

Izenburuan ikus daitekeen legez, euskaraz eta frantsesez dago: ez dakigu nork bildu zituen kanta hauek eta nondik, nahiz eta izen geografikoak behin baino gehiagotan aipatzen badira ere. Berrargitaragarritzat ikusi badi-tut balio historikoaren aldetik izan da bereziki, eta euskarazko bertso zahar-rengatik.

Esan dugu bigarren faszikulua dela: argitaratzera eman zuenak zera diosku, faszikulu hau askoz ere "kurios" eta "interesgarriago" a dela lehena baino eta hemen biltzen diren idazkiak oso ezezagunak direla iraultza garaie-koak direlako. Horri gaineratzen dio geroago argitaratuko den serie oso baten hasierarako balio dezaketela: "...d'un série que nous nous efforcerons de reconstituer tout entière plus tard". Ez dakigu jakin zertan geratu zen argi-taldariak azaldu zuen borondate ona.

(1) Aipatutako titulua. Bayonne, P. Cazals, Imprimeur-Libraire, 2, Place du Réduit, 2, M. DCCC. LXXV.

Bi dokumentu politikoak aipatu ditut lehenbizikorik: “*Le Règlement de police intérieure de l'Assemblée électorale des Basses-Pyrénées, du 13 Août 1790*”, bata; “*Proclamation du Procureur-Syndic du District d'Ustaritz sur le paiement des Impôts et l'obéissance à la Constitution*”, bestea. Lehen Pirineo Apaletako artxiboetatik hartua omen dago, bigarrena, berriz, “*Cahier de Voeux*” idatzi zuenari zor diogu. Bi pieza hauek garrantzi handikoak dira eta irakurlea bertara joatea izanen zaigu biderik laburrena haien inportatziatzaz nagusi gaitezen: ikustekoa, esaterako, apezteriarren antolamendu soziala.

Beste bi kantu laburrak —zortziko txikiak— erligiosoak ditugu. Lehen kanta Senpereko apaizari dagokio: Marithorry-ri, hain zuzen. Bigarrena, aldiz, Frantziako Konstituzioa juratu zuten zazpi apezki eskainirik dago. Dena den, liburuaren sarreran ematen zaizkigu zenbait datu garai honetako gizartearen egoeraz datu aldetik eskasia handia dagoelakoaz idazlea arrankuraka baldin badago ere: “*L'histoire de cette époque troublée dans le Pays Basque est encore à faire*”.

Liburuaren egilearen ustetan euskal apezteriak erreputazio handia zen dotrina mailan, baina disziplinari zegokionean, ordea, guztiz aske eta independentea omen genuen. Horretarako, froga moduan, Etchepareren kasua aipatzen digu eta Zamacola-ren *Historia de las naciones Bascas* lanetik zita bitxia hartzen du:

“Los antiguos Bizcaynos, sin duda de los tiempos que abrazaron la religión cristiana, hicieron una ley que aun existía pocos años ha en cierto fuero viejo que se hallaba en una Biblioteca de Valladolid, por la que dispusieron que respecto que los ministros del culto no podían ser casados se permitiese a cada uno de ellos tener una Barragana (concubina), puesto que eran hombres como los demás, para que las mugeres Bizcaynas estuviesen libres de sus persuasiones”. C'est un point à vérifier, dio egile frantsesak.

1790.ean, Frantziako Batzarre Nazionalak eklesiastiko guztiek Konstituzioari juramendua egin ziezaioten erabaki zuen Azaroaren 27an. Apaiz gehienak Espainiako aldera pasatu ziren onartu ez zutelako erabakia, baina Frantzia aldean geratu zitzaizkigunekoan artean sei ditugu ezagunenak:

1. Gorrity. Kantuak esaten duena bakarrik dakigu.
2. Diharassy, Ezpeletako bikarioa: juramendua egin zuen lehenik eta gero hura desegin ondoren ez zuen Espainiara pasatu nahi izan.
3. Marithourry, Senperekoa, komuna honetako manifestaldi politiko iraultzaile guztietan sartua; horregatik eskaintzen zaizkio kantu bateko bertso guztiak. Senpereko Kontseil Muzipaleko bultzatzailea, popularitate handikoa, hainbat dokumentutan ikus daitekeenez.
4. M. Sorhondo, Urkuiteko apaiza izango zen seguraski Sorhaine izenekoa. Oso ezaguna, apaizgoa utzi eta ezkondu egin baitzen. Honen anaia bat (hura ere apaiza) Baionan hil zuten juratu nahi izan ez zuelako.

5. Etcheverry, Baugard-ko komunakoa, azkenean apez arropak utzi zituen. Senperek Baugard izena hartu zuen garai labor batean, Frantzia aldeko Euskal Herriko beste komuna askok beren izen historikoak aldatu zituzten modu berean.

6. Duronea; "Ensuite s'est présenté M. Duronea, vicaire, qui a Juré de veiller avec soin sur fidelles du peuple qui lui est confié, d'être fidelle à la Loi et a Roy, et de maintenir de tout son pouvoir la Constitution decretée par l'assemblée Nationale...", dio liburuak biltzen duen dokumentu batek.

* * *

Ikusiko dugunez, beste alde honetara pasatu zen eklesiastikoren batek ez zuen onartu bere lagunen erabakia eta horregatik paratu zizkien kanta "anti-raultzaile" hauek. Horregatik ere, bilduma egin duenaren ustetan bi kantuok oso arrontak ditugu ("mediokreak") bai edukian baita forman ere. "Elles sont généralement d'une vulgarité inexcusable", "en un basque mixte" idatziak eta seguru ez bada ere Uztaritze, Kanbo edo Larresoroko apaizen baten eskuari zor zaizkio 1791eko Otsailaren eta 1791eko Abenduaren arte horretan eginak direlarik.

Amaitzeko, dokumentuak zuzen zuzenean ikusi baino lehenago zera esanen dugu: dokumentuok Alexandre Dihinx hil zelarik lortu zituela argitaldaria, Dihinxek berak XAHOrengandik eskuratu ondoren. Bi kanta erligiosoak erdi publikaturik zeuden: lehena bi edizio txar eta huts nabarmenez estalirik eta bigarrenak, argirik ikusi gabe zuen ordurarte. Irakurle bat baino gehiago poztuko delakoa ematen ditugu aditzera.

Bilbon, 1980.eko Otsaila

LEGUEAC MANATU ZUEN

JURAMENDUA

EGIN ZUTEN ESCALDUN APHEZEN

CONTRACO CANTUAC

I

NACIONECO BESTA

SENPEREN

Senperen eguin dute besta bat handia:
 declaratcera noha, guciec gueardia.
 Jaun erretorac ditu oro gomitatu,
 Nacioneco besta dute ohoratu.

Atxo cahar batçuec, ongui aphainduric,
 plaçala bildu dira, elgar adituric,
 ikhusi dutenean han eztela deusic,
 ostantura joan ciren, bihotçac ilhunic.

Ostatuan sartcian, etheco jaunari,
 atxoec erran diote: "hox! fite, Bettiri,
 "gaur besta handi dugu, iguçu jatera,
 juan behar dugu guero guciec plaçala".

Bazcaiteco demboran, batac bertceari
 oihu eguiten çuten: "hire graciari!"
 "bibe nacionea!" cioten gogotic,
 "gaztetan eztun orai gu beçalacoric".

Bazcaldu direnian atxo gaztetuac,
 contrapasetan dire hasi çoratuac:
 "hotx, beguira hutx eguin!" cioen atxuec,
 "dostatu behar dugu gaur hemen guciec".

CHANSONS
ANTIREVOLUTIONNAIRES
 contre
LES PRÊTRES'ASSERMENTES
 DU PAYS BASQUE

I
La Fête de la Nation

A Saint-Pée

On a fait une grande fête a Saint-Pée; —je vais raconter comment tout se passa: —Monsieur le curé a invité tout le monde, —on a noblement célébré la fête de la nation.

Quelques vieilles femmes, bien parées, —se sont réunies à la place, après s'être entendues; —qand elles ont vu qu'il n'y avait rien là, —elles sont allées à l'auberge, le coeur assombri.

En entrant dans l'auberge, au maître de la maison —les vieilles ont dit: "Allons, vite, Pierre; —Nous avons ce soir grande fête: donnez-nous à manger, —nous devons ensuite aller toutes à la place".

Pendant le temps du dîner, l'une à l'autre — criaient à haute voix: "à ta grâce!" - "Vive la nation!" disaient elles de bon coeur, — "parmi les jeunes, il n'en est pas aujourd'hui de comparable à nous".

Quand elles ont diné, les vieilles rajeunies — se sont mises à danser le contre-pas affolées: — "Allons! gare à ne pas se tromper!" disaient les vieilles, - "nous devons toutes ce soir nous divertir ici".

* * *

Dantçatu direnian arbasso çaharrac,
 camporat ilkhi dira, husturic saquelac;
 plaçan arribatcian, bisayac gorriric,
 mundu gucia çagoen irriz çabalduric.

Jaun erretora berriz leihorat ethorri,
handic complimenduca citçaye hassi:
“hotx! ene haurrac, orai hor dantça çaitetzte,
“ni er çuyequilan abia nindaite”.

Atxoec errephusta jaun erretorari:
“çu beharco çaitugu ororen guidari”:
emaiten da truncoa aintcinguidaritçat,
atxo çahar gucien gobernatçaitçat.

Hassi cenean beraz truncoa dantçatcen,
gure atxo guciac irriz eman ciren,
bere escu cimurrac emanic hanquetan;
oro beguira çauden, besta handi hartan.

* * *

Gure atxo gaiçoac etciren unhatcen,
bere artçainarekin oro content ciren.
Ordean heyen senhar gachoac etchean
tupina hutsa çuten bathu ilhuntcean.

Guiça-gaiçoac ciren plaçalat ethorri,
bere emazten bilha coroac iduri.
Jaun erretorac hori ikhusi orduco,
oihu eguin cioten baken eguiteco:

“Çuc Joannes, edan çayu, çuc ere Domingo,
“ene escuyetariç cembait arno trago.
“Bibe nacionea, eguiçu, çuc Pello!
“egun hasserratçiac deus eztu balio.

“Guiçon eta emazte dugun oroc edan,
“bassoac trincaturic omore onean;
“çoazte elgarrekin guciac bakean”:
besta akhabatu cen hola arratxean.

Quand elles ont dansé les vieilles aîeules — sont sorties dehors, ayant vidé leurs poches; — à leur arrivée sur la place, les figures rouges, — tout le monde demeurerait à éclater de rire.

Monsieur le curé, à sont tour, venant à la fenêtre, — s’est mis de là à leur adresser des compliments: — “Allons! mes enfants! dansez maintenant — moi aussi, je sortirais (volontiers) avec vous”.

Les vieilles de répliquer à Monsieur le curé: — “Nous aurons besoin de vous pour être le guide de toutes”. — (Et) le tronc se met, comme guide, à leur tête, — comme le directeur de toutes ces vieilles...

Quand donc le tronc a commencé à danser, - toutes nos vieilles se sont mises à rire, — posant leurs mains ridées sur leur hanches; — tout le monde demeurait à (les) regarder pendant cette grande fête.

* * *

Nous pauvres vieilles ne se fatiguaient pas, — elles étaient toutes contentes avec leur pasteur; — cependant, leurs infortunés maris, à la maison, — avaient trouvé à la brune le pôt vide.

Ces pauvres diables étaient venus à la place, — chercher leurs femmes, paraissant aburis. — Mais dès que Monsieur le curé avait vu cela, — il leur avait crié de faire la paix.

“Vous, Jean, buvez; vous aussi, Dominique, — quelques coups de vin de mes mains; — faites: “Vive la nation!” vous, Pierrot! — Se mettre en colère ce soir, cela ne vaut rien.

“Hommes et femmes, buvons tous, — en faisant trinquer nos verres de bonne humeur, — allez ensemble tous en paix”. — La fête s’était ainsi terminée le soir.

II

Aphez juratuac

Canta deçagun boca eta altcha gora,
bertsu estranger batçu detçagun fagora:
ez nauçu declaratcen nor duten autora,
ala den bicaria, ala den erretora.

Çu çaitut materia, monsieur Iharassarry,
nacioneac fidel çaitu bere cerbitzari.
Nola behatcen dioçu gure Eliçari,
trublatua cabiltça haren gueriçari.

Uste duçu lehena duçula burua,
casic governua ere dioçula mundua:
hainitz volanta duçu, o sendimendua,
utci duçunaz gueroz gure aita seindua.

Theologian cinen demboraz professor
orduan baitcinduen orotaric agur.
Süyet handiac-ere çure ciren beldur,
argumentalaz gueroz ez baitciren segur.

Lauda ere cinitçaquet bacinu mereçi;
 bainan etsayac daitçu oro galaraci.
 Lehen chismaticoetan çu cinen bereci,
 aita seindu maiteari erranic goraintci.

* * *

Monsieur Iharassarry Aguerreco apheça,
 berthute gabea da orai çure meça.
 Juramentu beltz hori turna bacineça,
 egundaino beçala cinitaque preça.

Çure baithan sarçaite eta eman gogora,
 guisa hortan çoacila leciaren ondora.
 Caritatez minço da leguiaren autora,
 imita deçaçula Camboco erretora.

Larrasoron bicari, monsieur Gorrity,
 hura ere ibili da goiti eta beheiti.
 Harc beçala eguiçu çuc ere prudenqui,
 flacatasun handiaz duçula urriqui.

Exhorta çaçu buru arin laguna,
 Açançatco apheça Sorhondo chalduna:
 Nientçat ilhundu da arguizco eguia,
 leguean fermu gaudenec oroc daquiguna.

II

Les prêtres'assermentés

Chantons et élevons la voix, — en l'honneur de quelques vers singuliers.
 — Je ne vous déclarerai point qui ils ont (pour) auteur, — si c'est le vicaire, ou
 si c'est le curé...

Je vous prends pour sujet, Monsieur Diharassarry; — la nation vou a
 (pour) son fidèle serviteur; — comme vous regardez du côté de notre église, —
 vous marchez, troublé, vers sa protection.

Pensez-vous que vous avez la première tête, — et que vous ayez presque
 pour gouvernement le monde? — vous l'avez bien fière, ô vanité! — depuis que
 vous avez abandonné notre saint-père.

Vous étiez dans le temps professeur de théologie, — alors vous aviez le
 salut de tous. — Les grands sujets même vous redoutaient, — et, après votre
 argumentation, ils n'étaient (plus) sûrs (de la leur).

Je vous louerais aussi, si vous l'aviez mérité; — mais (nos) ennemis vous ont fait tout perdre. — Vous vous étiez séparé en premier lieu dans les schismatiques, — en disant au cher saint-père: “bien des compliments!”

* * *

Monsieur Diharassarry, prêtre d'Aguerrea, — votre messe est maintenant sans vertu; — si vous rendiez ce noir serment, — on vous estimerait comme jusqu'à aujourd'hui.

Rentrez en vous et appliquez-vous à réfléchir — que, de cette manière, vous allez au fond de l'abîme. — L'auteur de la loi parle charitablement, — que vous imitez le curé de Cambo.

Le vicaire de Larressore, Monsieur Gorrity, — celui-là aussi a marché par hauts et par bas. — Comme celui-là, agissez, vous aussi, prudemment, — et repentez-vous de votre grande faiblesse.

Donnez vos exhortations à votre camarade à la tête légère, — le prêtre d'Acantza, le chevaleret Sorhondo: — Pour vous (tous) s'est obscurcie la vérité lumineuse, — celle que nous avons tous, nous qui restons fermes dans la loi.

* * *

Monsieur Iharassarry, aditu dut berria,
Hiriarty quita-araci dioçula herria...
Baldin hartu içan balu çuc duçun leguea,
baliatuco Çangon jaun hari eguia.

Ala finqui baituçu eguina botua
soberanoaren contra arras gogortua:
damuric içan çare mundurat sorthua,
estola, casolaz Jaunac sacratua.

Monsieur Marithurry Senperen erretor,
cu beçain prest içan da hura ere errorquor.
Erregueén erreguia ezta ez ahantzquor,
hala guertha baledi oraino nonbait hor.

Çu estonatcen naiz, monsieur Duronea,
horren maite duçunez bada ilhumbea:
itcul-açu gu gana, ô! desircundea,
çucen nahi baduçu ceruco bidea.

Erretretan sar çaitte çure lagunequin,
pobreac socorrituz cembait barurequin:
mundura sorthu cinen guti donurequin,
soberanoa eman da hainitz damurequin.

* * *

Bihotzez eguique, ô nigar marrasca,
dugun aita seindua barne onez besarca;
hari sumeti çайте joan gabe hasarca,
pharabisura goacen guciac, gualtcarca.

Bertsu huntan mintço naiz monsieur Larrondory,
nola gogortu çayen Senperen orori:
aristroquee deçagun guciac socorri,
ceren juramentura ez baita erori.

Bera escapatu da haiñitcen artetic,
ardi-inocenta nola otxoen artetic.
Leguean fermu dago Jesu-christo gatic,
beraz laudagarri da, gucién gainetic.

Flaco, miserablea, non çare, Etcheverry,
munduari eraguin dioçu cembait irry:
cure erretoria oraino ezta agueri,
paperac omen dira urerat erori.

AMEN

Monsieur Diharassarry, j'ai entendu la nouvelle — que vous avez fait quitter le pays à Hiriarth. — S'il avait adopté la loi que vous avez, vous, — la vérité eut valu pour ce monsieur.

C'est ainsi qu'habilement vous avez faite le voeu, — très endurci contre le souverain; — c'est dommage que vous soyez né au monde — (et) consacré par Dieu de l'étole et de la chasuble.

Monsieur Marithurry, curé de Saint-Pée, — est devenu vite, comme vous, prêt à succomber. — Le roi des rois n'est pas, non, oublieux; — s'il en arrivait ainsi, passe encore.

Je m'étonne de vous, Monsieur Duronea, — que vous aimiez tant que cela l'obscurité. — Revenez à nous, ô ambitieux, — si vous voulez (suivre) droit le chemin du ciel.

Entrez en retraite, avec vos camarades, — secourant les pauvres, avec quelque jeûne: — vous êtes né au monde avec peu de dons (naturels) — et le souverain s'est trouvé (par vous) en grand dommage.

Faites de coeur, oh! des pleurs et des sanglots, — embrassant d'une bonne conscience le saint-père que nous avons. — Soumettez-vous à lui, sans aller au hasard, — (et) allons tous en un seul groupe au paradis.

Dans ce couplet, je parle à monsieur Larrondo, — comment à Saint-Pée il fut traité durement par tout le monde. — (Nous) aristocrates, allons tous à son secours, — parce qu'il n'est pas tombé dans le serment.

Le même s'est échappé d'entre beaucoup, — comme la brebis innocente du milieu des loups. — Il demeure ferme dans la loi, pour Jésus-Christ, — il doit donc être loué au dessus de tous.

Faible, misérable, où êtes-vous, Etcheverry? — vous avez quelque peu donné à rire au monde. — Votre cure n'a pas encore paru, — les papiers sont à ce qu'on dit, tombés dans l'eau.

Pyrenæa Aphaletaco

*Departimenduco Electur edo Hautatçailen
Bilkhuya Bearneco ordenaren Erreguelamendua, Abustuaren 13^{an}, 1790^{an}
eguiua.*

Lehembicico Articulua

ELECTURREC bilkuac itchiquico tuste goizeco çortci orenetarie arraxaldeco hirur orenetairino deliberatceco casua denetan. Bañan ez denean questione içaten scrutinaren bidez hautuen eguiteaz baïcen hassico dire goizeco çortci orenetan eta separatuco oren batean berriz bilceco hirur orenac eta erditan arraxaphal artio.

II. ART.

PRESIDENT edo aincindariac ordena ona atchicaracico du bilçarrean, eta hare bakarric ordena onerat deïthuco hartarie aparta litequena, eta presidentia ohartcen ez balitz, ceïnahi membrec abissa deçaque. Presidentac ecin utcico du bilkuya.

III. ART.

BEHIN - ordeaurat deïthua içanen den Electurra, ordena onean sarteen ez bada harren desobediencia emana içanen da procez verbalean; irauten badu desobediencia emana içanen da procez verbalean; irauten badu desobediencia harree, khenduco cayo orduan questione içanen den gauçaren gaïnean bere boçaren emateco çuçena; eta urrunago badoha harren desobediencia, orduan assambladae berecico du idurituco çayon pena garrat cagoa.

IV. ART.

PRESIDENTAC disputatic formatuco eta guero paussatuco du questionea. Bisquitartean cilhegui içanen çayote membroei questione hura ungui paussatua assambladari idurituco

REGLEMENT

De police intérieure de l'Assemblée Electorale des basses Pyrénées, du 13 août 1790 ().*

Article Premier

L'ASSEMBLÉE Electorale tiendra ses Séances depuis huit heures du matin jusqu'à trois heures de relevée, lorsqu'il y aura matière à délibération; mais, dans le cas où elle n'auroit à s'occuper que des Elections par la voie du scrutin, elle se réunira à huit heures du matin, se séparera à une heure de relevée & reprendra ses Séances à trois heures & demi de relevée pour les continuer jusqu'à l'entrée de la nuit.

ART. II

Le Président fera observer le bon ordre dans l'Assemblée, & lui seul rappellera à l'ordre celui qui s'en seroit écarté: si le Président ne s'en avoit pas, tout membre pourra lui en faire l'observation. Le Président ne pourra quitter l'Assemblée.

ART. III

Si un Electeur, rappelé à l'Ordre, n'y rentre pas dans l'instant,, il sera fait mention de sa contravention sur le Procès-verbal, & s'il persévère dans sa contravention, il sera privé de voter sur la matière mise en délibération, sauf à l'Assemblée, en cas d'une plus longue persévérance de la part du contrevenant, à prononcer contre lui telle & plus forte peine qu'elle jugera convenable.

ART. IV

M. le Président résumera la discussion & posera la question: mais chaque membre pourra faire ses observations cayon artio çaiçcoten erremarquen eguitea. Bere boza presidentac azquenic emanen du.

ART. V

MINÇATU nahi denac bere icena scribur emanen du, eta hitza he karrico da scribu harren herrunca berean. Discussionea ecin çarratuco da bilcarren botua gabe, cein botu hartua içanen baita chutituz eta yarriz.

* A PAU, chez DAUMON, Imprimeur du Roi, & de l'Assemblée Electorale des Basses Pyrénées.

VI. ART.

HARANGAICAILEAC adituac iñanen dire alte eta contra aldizca.

VII. ART.

BACOTCHAC observacione simpleac proposa ahal detzaque bere lekhu-tic.

VIII. ART.

MEMBRORIC batere ecin absentatuco da abissatu gabe presidenta, ceñnac atchiquico baitu nota harren partiaduco egunaz, hala nola bihurtuco denaz eta hortaracotz orobat bihurcean presentatuco çayo presidentari, eta yoan ethorri horiez erregistro itchiquico da egun guciez buruean.

IX. ART.

ASSAMBLADACO membro ez deniz ecin sartuco da assambladan. Berceac egonen dire galerietan.

X. ART.

DISPUTATUAC eta chehatuac içatea balioco duten materiez bezperatic abissatuco du presidentaren alkhiaren aincinian emana iñanen den scribu batez.

XI. ART.

DELIBERACIONE guciac har ditiesque chutituz eta y arriz bañan froga suerte horrec dudaric uzten badu, edo assambladac hala desiratcen badu, casu horietan hartuco da bacotcha içenez deithatuz.

XII. ART.

ERREGUELAMENDU hau bi partetan francesez eta escuaraz imprimatua iñan ondoan assamblaco membro bacotchari copiac furnituac içateco, erregistroan emana iñanen da.

Abuotuaren 13^{an} 1790^{an}.

Signatua: LABORDE-LISSALDE, presidenta, CASAMAJOR, secretarioia.

Originalaren gañean fedatua, CASAMAJOR, secretarioio.

* * *

ART. IV

M. le Président résumera la discussion & posera la question: mais chaque membre pourra faire ses observations jusqu'à ce que la question paroisse bien établie à l'Assemblée. M. le Président votera le dernier.

ART. V

CHACUN pourra se faire inscrire pour la discussion, & portera la parole suivant l'ordre de l'inscription sur la matière mise en délibération. La discussion ne sera fermée que de l'avis de l'Assemblée qui sera pris par assis & levé.

ART. VI

LES Orateurs inscrits seront entendus alternativement pour et contre.

ART. VII

LES Membres de l'Assemblée pourront proposer de simples Observations de leurs places.

ART. VIII

NUL membre de l'Assemblée ne pourra s'absenter sans en prévenir le Président qui tiendra note du jour du départ; & lorsqu'il sera de retour, il se présentera devant le Président qui tiendra également note du jour du retour; de tout quoi, il sera fait registre jour par jour sur le Bureau.

ART. IX

Nulle personne, qui ne sera point membre de l'Assemblée ne pourra entrer dans le lieu de sa Séance, ceux, qui voudront y assister, se tiendront dans les galeries.

ART. X

Les matières importantes, qui devront être seumises à la discussion, seront mises à l'ordre du jour sur un tableau qui sera placé, dès la veille, devant la Tribune de M. le Président.

ART. XI

Toutes les délibérations pourront être prises par assis & levé, & en cas de doute ou du désir de l'Assemblée par l'appel nominal.

ART. XII

Le présent Règlement sera transcrit sur le registre de l'Assemblée, & imprimé en deux colonnes en françois & en basque, pour en être distribué des exemplaires aux membres de cette Assemblée.

Le treize Août mil sept cent quatre-vingt dix.

Signé: LABORDE-LISSALDE, Président. CASAMAJOR secrétaire.

Collationné sur l'original; CASAMAJOR, secrétaire.

USTARITZECO

PROCURADORE SINDICAREN PROCLAMATIONEA, BEHAR DUTELA GUCIEC IMPOSAC PAGATU ETA CONSTITUTIONEARI OBEDITU

HERRITARRAC,

Oray ikusico daçue cebec, cembat ciren falsoac çuen arthean etchatu nahi içan tusten beldurcundeac Imposen handitasunen gainean, ciotelaric, gaisqui intentionatuec, sinhetsaraci nahi çotelaric, Imposes lehertuyac içaterat cinoastela.

Distriqueco Directoriac eguindu Imposen errepartimendua Distriqueco herri gucien artean. Errepartimendu general hura imprimatuya içaterat doha, affichatuya içanen da Municipalitate gucietan: Herri bacotchec, eta Herri bacochetaco habitant guciec eçagutuco dute moyen hortas Herri bacotchari toquatcen çayoен Imposen partea.

Municipalitatec bere aldian errepartitu behar dute bere Herritar gucien artean, Herriari toquatcen çayoен Imposen partia, eta errepartimendu hori oraino emanen diotegu eçagutcerat gucicy.

Moyen horietas jaquinen duçue cebec cer pagatuco duen Herri bacotchac, eta Herri bacotchetan cer pagatuco duten habitant bacotchec.

Municipalitate bacotchac eçagut deçaque aria hortas eya bere Herria eta bertce eçagut centuen Herriac sobera edo guttieguy taxatuyan diren, eta habitant bacotchac eçagutuco du orobat eya Municipalitate bacotcheco Herritarren artean, errepartimenduya justuqui eta erregulierqui eguina den habitanten fortunaren, aberastassunen eta içatearen erredura, ecen fundament horien gucien gainean ordenatu du Asamblada Nationalec pausatuac içan ditecen imposac. Ontasun hainitz duen guiçonac pagatu behartu Imposac bere ontasunen arauca: guiçon abaratçac bere buruari emaiten dioelacots ordenariosqui comoditate guehiago bere alogimenduyan, taxatuya içanen da arauca pagatcen duen alocairouaren gainean, berea ez badu occupatcea duien etchea, edo berea badu etchea, etche harc errenda lecaquen alocairouaren arabera. Fortunez edo aberastasunez igual direnen artean, esconduya ezden guiçonac bere buruya baicic entrenitceco ezduelacots, pagatuco du esconduiac baino guehiago. Fortunas edo abarastasunes igual direnen artian, oraino familiaco aita, haur nombre bat duenac, gutiago pagatucodu, haur nombre tthipiagobat duenac baino.

Imposen errepartimenduaren agueritasunac eta eçagutça justuac, guibelatucu ditu abusu guciac, injusticia guciac, ceren errepartimenduyan colpatua içan den Herriac edo Herritarrac, eçagutuco baitu, bere hala eta errechsquia-

go frogatuco hutça, ceren finean aria hortas errendaracico baitio bere buruyary justicia.

Holacoa da, Herritarrac, Constitutione berriac emaiten dausquitçuen abantailen parte bat, Imposen gainean. Asqui handiac litesque abantail horiec çuyen engayateco, horien fagoretan jaçaterat cembait dembores oraino eta Francesen leyaltasunari ohore eguiteco Imposen emendacione bat ere, bainan ez ordu da çuey erraiteco ez choilqui gosatuco cirete abantail horiez, bainan oraino, urrhunda imposetan emendacionerik içaitea, oraindic beretic çuyen kargac arinduyac dire, oraindic ez duçuye errealqui pagatuco lehen pagatcen cinduten beçainbat, eta hori çor içanen dioçue guiçonnari bere libertatea errendatu dioen Errevolutionary, Errevolutione hari ceinac consecratu baitu guiçonen arteco dretchuen higualtasuna eta eçagutu secular ecin galduco Natione handibaten soberanotasuna.

Diot oraindic ez duçuyela pagatuco lehen pagatcen cinduten beçain bat eta errech içanen çaitçuye hortas cehen buruya seguratcea.

Lehen pagatcen cintusten Dechimac; pagatcen cintusten Premiciac; pagatcen cintusten Imposac; pagatcen cintusten Bathayoac, Esconçac, Enterramenduyac.

* * *

Orai Detchimaric eta Premiciaric ez duçue guehiago çor; jadanic aurthendic ez duçue pagatcen; Lebayaric ez da guehiago; Aphasac Nationeac pagatcen tu; Bathayoac, Esconsac, Enterramenduyac dohainic eguin behar-tuste.

Condaçaque, eta errechs da, çuen Herrien Detchima eta Premicien affermac edo balioac cer emaiten çuben; emenda dioçoçue oraino çuen Herriac pagatcen cituyen Imposac; ikusçaque aphurbat goity beheity, Esconcek, Bathayoec, Enterramenduyec çuen Herrian Erretor, Vicarioey emaiten ciotena. Eguiçuye objet different horiez guciez suma bat: ikhara cinçaquete pagatcerat obligatuyac bacinete.

Hurbil çatçuye guero, elkharrequin compara çatçuye; oray çuen Herriary eman çaiscon imposac, eta lehen pagatcen cintusten suma gouciac eta aurquituco duçuye, segur nais, diferencia handibat, çuen fagoretan.

Contu general horiec gaitsequi dire beharbada çuyetaric cenbeitençat, eta arraçoïn horren arias, indicatu nahi dautçuet oraino moyen simpleago bat çuey sinhetsarasteco erraiten dauçuedana.

Çuey lehenic adresatçen nais, Laborariac guiçon precios eta errespectagariac, çuen estatua delacots estatuetan den noblena, estatu gucien aincindaria.

PROCLAMATION

DU PROCUREUR-SYNDIC DU DISTRICT D'USTARITZ SUR LE PAIEMENT DES IMPÔTS ET L'OBÉISSANCE À LA CONSTITUTION

CITOYENS

C'est maintenant que vous allez juger par vous-mêmes, combien étoient fausses les allarmes qu'on a cherché à répandre parmi vous, sur l'énormité des Contributions dont les malveillans vouloient vous persuader que vous alliez être accablés.

Le Directoire du District a fait le répartition des Contributions publiques entre toutes les Municipalités qui forment son territoire: le tableau de ce répartition général va être imprimé, il sera affiché dans toutes les Municipalités; chaque Commune, et tous les individus de chaque Commune, seront par ce moyen à portée de connoître la portion contingente de chaque Municipalité.

Les Municipalités à leur tour doivent procéder incessamment à la répartition de leur part contributive sur tous les habitans qui forment leur Commune, et nous donnerons encore à ces rôles toute la publicité possible.

Par ces moyens, vous saurez par vous-mêmes, ce que payera chaque Municipalité et la portion contributive de chaque individu dans les Contributions publiques.

Chaque Municipalité sera à portée de connaître le plus ou le moins taxé de sa Commune et des Communes dont elle connaîtra la force et l'étendue, et chaque particulier connotra aussi si la répartition entre les concitoyens d'une même Municipalité est juste et régulière dans les proportions de leur fortune, de leur richesse et de leur position; car c'est sur toutes ces bases que l'Assemblée nationale a ordonné l'assiette des Contributions publiques. L'homme qui jouit d'un domaine considérable supportera sa part des Contributions publiques proportionnellement à ses possessions; l'homme riche se donnant ordinairement plus de commodité dans son logement, sera taxé proportionnellement au loyer qu'il paye si son habitation ne lui appartient pas, et proportionnellement au loyer que produiroit sa maison si son habitation lui appartient. A égalité de fortune, le Célibataire qui ne doit pourvoir qu'à sa propre subsistance, payera plus que l'homme marié qui doit entretenir une famille; à égalité de fortune, encore, le père de famille ayant un certain nombre d'enfans, payera moins que celui dont la famille est moins nombreuse.

Cette publicité, cette connoissance précise des Contributions publiques et de leur répartition, évitera tous les abus, toutes les injustices, parce que chaque Municipalité, chaque Citoyen qui pourroit être lésé dans la réparti-

tion, connoitra plus précisément la lésion, sera plus à portée de la constater, et de se faire rendre justice.

Telle est une partie des avantages que vous procure, Citoyens, la nouvelle Constitution sur les Contributions publiques. Ces avantages seroient assez grands, assez considérables pour que vous suportassiez en leur faveur, pendant quelque temps encore, et pour faire honneur à la loyauté Française, un surcroit de Contributions que sembloit nécessiter le délabrement des finances de l'état: mais, non il est temps de vous le dire, non-seulement vous jouirez de tous ces avantages dont je viens de vous faire le détail, mais bien loin encore de supporter un surcroit de Contributions, votre sort se trouve dès ce moment amélioré et vous ne payerez pas réellement dès cet instant, ce que vous payiez avant l'heureuse révolution, qui rend à l'homme sa liberté, consacre légalité des droits, et reconnoit la souveraineté imprescriptible d'une grande Nation.

Je dis que vous ne payerez pas dès cet instant, ce que vous payez avant la révolution, et il vous sera facile de vous en convaincre par vous-mêmes.

Vous payiez la dime; vous payiez la prémice; vous payiez vos impositions; vous payiez les droits d'octroi sur les vins, sur la viande de boucherie; vous payiez le baptême de vos enfans; vous payiez la célébration de vos mariages; vous payiez les enterremens.

Aujourd'hui la dime et la prémice sont abolis; déjà vous n'en avez pas payé cette année: les droits d'octroi ne subsistent plus; les ministres de la religion sont salariés para la Nation, vos baptêmes, vos mariages, les derniers devoirs que vous rendez à vos proches sont gratuits.

* * *

Calculez, cela est très-facile, ce que produisoit dans votre Municipalité, la ferme ou la régie de la dime et de la prémice, ajoutez à cette somme le produit des droits d'octroi: joignez-y le montant des impositions que votre Municipalité payoit sous l'ancien regime; voyez, par aperçu, ce que le casuel rendait au Curé, aux Vicaires de votre paroisse, formez la somme totale de ces divers objets; elle vous effrayeroit si vous deviez encore les acquitter.

Comparez ensuite la portion des Contributions publiques qui a été mise à la charge de votre Municipalité, avec le total de ce que vous payiez antrefois, et vous trouverez, j'en suis sûr, et j'ose l'affirmer, une très-grande différence à votre avantage.

Ces calculs géuéraux ne seront peut-être pas possible pour une grande partie d'entre vous, et par cette raison je veux encore vous indiquer un moyen plus simple et plus à votre portée pour vous convaincre de la vérité de mes assertions.

C'est à vous d'abord, laboureurs, hommes précieux et respectables qui exercez le premier et le plus noble de tous les états, que je m'adresse.

Eguicue contubat ahalic eta justuena, cuen bethico lanen eta copetaco icerdien arias, cuen lurrec ekartcen tusten bihi eta bertce fruiten quantitateas. Examina çaçue cembat quantitate hartaric emaiten cinduten Detchimaren eta Premiarenat, Detchima eta Premicia heyen balioa calculaçaçue: suma horren muntantary emendadiococue çerbait guehiago, batçuetan çuen indarren sustengatçeco behar tuçuen arno eta haraguiençat Lebayen arias guehiago pagatçen cintustelaçots; junta diotcoçue oraino suma horri lehen pagatçen cintusten Imposac eta Eliçaco casuelencat pagatçen cintustenac. Orhoit citeste gauca horietaris, ezduçuyela guehiago deus pagatuco.

Icuçaçue guero, cenbatençat caiten taxatuac Contributione publicoetan, eta erranen dautaçue, segur nais, jadanic hainits irabasten duçuela ordena berri huntan.

Eta çuek Hiri eta Herri bilduyetaco Habitantac estatu edo profesione bat duçuenac, consideraçaçue lehenic Assablada Nationalac içan duen attentione particularra ordennatu duyenean esdirela condatuco Impositione Mobiliera deitcen denaren pausatceco eçagutu behar diren aloçayruetan, çuen estatuaren edo profesionearen erabilceco behartutçuen atelierac, erran nahida botica eta bertce harri darraisconac. Calculaçaçue, eta hemen aurquituco duçue abantail handia: calculaçaçue cer irabasten duçuen Lebayen supresioneas: juntacotçue calcul horiey lehen pagatçen cintusten Imposac: comparaçaçue çuen oraico taxa, lehen pagatçen cintusten dretchuequin eta atcemanen duçue abantail handibat.

Horrela seguratcen çaitelariç cebec Constitucioneac ematen dausquitçuen abantailles Impositionen gainean, seguratuac içan citeste orobat abantail berac aurquituco tuçuela Constitucionearen bertce parte gucietan, çoinen detaillean ecin orai sarbainiteque.

* * *

Faites un compte aussi exact qu'il vous sera possible de la quantité des grains et des autres fruits que produit votre domaine par le travail continuel de vos mains et à la sueur de votre front. Examinez sur ce produit combien vous en donniez pour la dime et la prémice; calculez-en la valeur, ajoutez à cette somme quelque chose de plus, et pour la plus value du vin, dont vous devez quelquefois ranimer vos forces, plus value que nécessitoient les droits d'octroi, et pour la plus value encore de la viande dont quelquefois encore vous ne pouvez vous passer, plus value nécessité aussi par les droits d'octroi: joignez encore à cette somme et les impositions annuelles que vous étiez obligé d'acquitter et ce que vous coûtoit annuellement le casuel de l'Eglise; réfléchissez que vous ne payerez plus rien de tout cela.

Voyez ensuite à combien vous êtes taxés pour votre part dans les Contributions publiques, et vous me direz, j'en suis certain, que déjà vous gagnez beaucoup au nouvel ordre de choses.

Et vous, habitants des villes et des bourgs, qui exercez un art ou une profession quelconque, considérez d'abord l'attention particulière qu'a eue l'Assemblée nationale, d'ordonner qu'on distrairoit, de l'évaluation du prix des loyers, pour l'assiette de l'Imposition Mobiliaire, les ateliers dont vous vous servez: calculez aussi, et c'est ici que vous trouverez le grand avantage, calculez ce que vous gagnez par la suppression des droits d'octroi: joignez à ces calculs le montant de vos anciennes Impositions: comparez-les avec votre taxe dans les Contributions actuelles, et vous y trouverez aussi un grand avantage.

Convaincus ainsi par vous mêmes des bienfaits de la Constitution dans la partie des Contributions publiques, soyez persuadés que dans toutes les autres parties de cette même Constitution, dans le détail desquelles il m'est impossible d'entrer en ce moment, vous y trouverez aussi les mêmes avantages, les mêmes bienfaits.

Herritarac, ez detçaçuela beras entçun malhurusqui gure artean oraino diren guti contentac, gaisqui nahiac: juntaciteste guciac Constitucioneary: guciec eguigun yuramentu berris ere haren mantenitceas.

Ez detçaçuela entçun particularsqui çuen conscienciatic trublatsu nahi tustenaic, gure erreligionea bethi bera, bethi bat da. Urhunda Asamblada Nationalac colperic den mendrena ekarri dioen, contrarat Asambladaco Decretac eraquarry nahituste gure erreligione sainduaren Ministroac evangelioco principiotarat eliça sainduac bere lehenbico demboretan, guiristionetasuneco dembora ederretan seguitcen cituen erregueletarat. Cernahi erran deçaten, examina çatçue cebec gauça guciac: eguiçue attentione Aphespicu, Erretor eta Vicario berriek declaratcen dutela haltoqui Aita Sainduaren comunionean direla, comunione hortan egon nahi dutela: eguiçue attentione, fedesco articulu berac, sacramendu berac, catechima bera, ceremonia berac, fede bera dugula: deus, ez deus ere, ez dela chanyatu gure erreligionean; seguraciteste çuen beguies, segiçatçuce Aphesyuramentu eguinen instructioneac, conduita, fonctioneac, ceremoniac, eta eçagutuco duçue gauça horien eguia.

* * *

Horrela çuey eçagutaraci ondoan Constitucionearen abantailac, guel-ditcen çait çuey erraiteco cer eguin behar duçuen Constitucionearen hobequi oraino tinquatceco, mantenitceco.

Sustengatcea hainbertce intres duçuen Constitutioneac, ecin manteni diteque, Herritarac, Nationaren errespectarasteco, eta barnean baquea, ordena ona eta bacotcharen içateac seguratçeco establituac diren indarrac, erran nahida tropetaco Soldaduer-Guardia-Nationalac, eta holaco bertce establituac esbalire mantentituac: Constitucioneac galdetcen du oraino bere mantenuarençat, harc establitu tuen autoritaten entretenimendua Fonctione publicoey eçagutu çaitoten sarien pagamenduas. Francesen leyaltaçunac galdetcen du finean Nationeac cargatu nahi içan duen corren pagamendua.

Tropac, Constitucionac establitu tuen autoritateac, Fonctioner publicoac, çorren pagamendua, finean Constitucionea bera, ecin sustenga diteque, Contributione publicoen pagamendua eguiten ez bada, presa gaitecen beras hain justuqui, hain leyalqui pausatuaçan diren Contributioneac pagatcerat. Moyen hortas eta moyen hortas bakarric evitatuco tugu desordena guciac eta desordenac ekartcen tuen calte guciac. Erresumaren intres generalac, baco-charen intres particularrac, Francesen icen gloriosac, arraçoïn guciec behar guituste beras engayatu, sobera guibelatuya den obligatione baites padaco horren bethetcerat. Gure Impos hain justuqui errepertituen, pagatceco irakacico dugun empresamenduyan, ecagotucoçu Franciac bere haur maiteac, eguiazco Citoyenac.

*Ustaritsco Distriqueco Procuradore sindica,
DHIRIART.*

A Bayonne, de l'imprimerie de Pierre

* * *

Citoyens, n'écoutez donc pas les mécontents, les malveillans, qui malheureusement existent encore parmi nous: ralliez-vous tous autour de la Constitution: répétons tous le serment de la maintenir.

N'écoutez pas sur-tout ces fanatiques qui cherchent à troubler vos consciences. Notre religion est toujours la même. Les Décrets de l'Assemblée nationale, bien loin de lui porter aucune atteinte, n'ont fait que ramener aux principes évangéliques, aux règles de la primitive Eglise, les Ministres de cette sainte religion. Eh! quoi qu'on en dise, examinez les choses par vous-mêmes: faites attention que les Evêques, les Curés et les Vicaires Constitutionnels déclarent formellement, qu'ils sont et qu'ils veulent être dans la Communion du Pape: faites attention que nous avons les mêmes articles de foi, les mêmes sacremens, le même catéchisme, les mêmes cérémonies, la même croyance: que rien, non rien, n'est changé dans notre religion, si vous voulez vous en convaincre par vos propres yeux, suivez les instructions, la conduite, les fonctions, les cérémonies des Prêtres Constitutionnels, et vous en serez persuadés.

Après vous avoir fait connoître les avantages de la Constitution, il me reste encore à vous parler de ce que vous devez faire pour la consolider et pour la maintenir.

* * *

La Constitution que vous avez tant d'intérêt à soutenir, ne peut pas exister, Citoyens, si la force publique, établie pour faire respecter la Nation au dehors, pour assurer les propriétés l'ordre et la paix dans l'intérieur, n'existoit pas: la Constitution exige encore pour son maintien, l'entretien des autorités constituées, le payement des salaires accordés aux Fonctionnaires publics: la loyauté Française exige aussi l'acquiescement des dettes dont la Nation a bien voulu se charger.

La force publique, l'entretien des autorités constituées, les Fonctionnaires publics, l'acquittement des dettes, la Constitution enfin, ne peuvent pas exister sans le paiement des Contributions publiques. Il faut donc, il faut donc nous hâter d'acquitter ces Contributions si justement, si légalement, si volontairement établies. C'est par ce moyen et par ce moyen seul, que nous éviterons l'anarchie, le bouleversement de l'Empire, sa dissolution et les maux infinis qu'elle entraineroit: l'intérêt général du Royaume, l'intérêt particulier de chaque individu, la gloire du nom Français, tout doit donc nous engager à remplir cette obligation essentielle dont l'exécution n'est déjà que trop retardée; c'est à l'empressement qu'on mettra à acquitter les Contributions que la Patrie reconnoitra ses enfans chéris, les vrais Citoyens.

Le Procureur-Syndic du District d'Ustaritz

DHIRIART